



## SARRERA - TESTUINGURU EKONOMIKOA

2025erako aurkezten den aurrekontu-proiektua legegintzaldi honetako bigarrena da. 2024ko maiatzaren 28an egindako toki-hauteskundeetan aukeratutako ordezkari politikoek Maider Etxebarriari eman zioten konfiantza Gasteizko alkate-lehendakari izan zedin, alkatea izendatzeko osoko bilkuran.

Aurrekontu-proiektu bat zorroztasun tekniko handienarekin eta indarreko legeria oso-osorik errespetatuz formulatzea eta aurkeztea erantzukizun handikoa da; izan ere, aurrekontuak balio behar du politika publikoak ikuspegi sozial eta ekonomiko batetik antolatzeke, ondasunak eta zerbitzuak ekitate sozial eta progresistaren ikuspegitik emateko moduan, eta baliabide publikoak modu eraginkor eta efizientean birbanatzeko moduan, betiere — ezin bestela izan—, behartsuenei arreta berezia jarritz. Hori dela eta, beharrezkoa da, zehatz-mehatz ez bada ere, eta ahal dela behar ez diren teknizismoak saihestuz, testuinguru ekonomikoa aztertzea mundu-, autonomia- eta toki-mailan, egungo eta etorkizuneko egitura eta egoera ekonomikoa kokatzeko eta orain aurkezten diren aurrekontuak egiten eta formulatzen laguntzeko.

2024ko lehen hiru hiruhilekoetako jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren adierazleek berretsi egin dituzte hobekuntzak jarraituko zuela iragarri zuten iragarpenak. Aldi horretan erregistratzen ari diren jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren emaitzek bi ondorio ekarri dituzte: alde batetik, urteko hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenen goranzko berrikuspen txiki bat, nahiko orokorra, eta, bestetik, interes-tasen nolabaiteko murrizketa abiatu izana, zeinak finantzaketa eskuratzeko baldintzak egonkortu baititu eta, beraz, horren kostua murriztu baitu. Balantzaren kontrako aldean, arrisku-faktoreak kokatu behar ditugu, horien artean, inflazioa, urte amaieran % 2,70 ingurukoa izango dela aurreikusteko bide ematen duten mailetan jarraitzen baitu, eta, batez ere, murrizteko aukera 2023an erregistratutakoa baino txikiagoa baita, eta, egiazki, garrantzi gutxiagokoa zerbitzuen osagaian.

Testuinguru horretan, Nazioarteko Diru Funtzak (2024ko urria) munduko hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenei eusten die 2024 eta 2025erako, +% 3,2an; hazkunde egonkorra da, baina etsigarria. Aurreikuspen berriak ekonomia aurreratuei buruzko pronostikoei eusten die, eta Euroguneari dinamismo txikiagoa esleitzen dio AEBren aldean. Eurogunearen kasuan, orain % 0,8ko hazkunde aurreikusten da 2024rako eta % 1,2koa 2025erako. Hazkunde hori uztaileko aurreikuspenak ( % 0,9 eta % 1,5, hurrenez hurren) baino zertxobait txikiagoa da. Aldagai makroekonomiko horiek ikusita, ospe handiko analistek iragartzen dute eurogunearen hazkunde ahulak eta inflazioaren moderazioak areagotu egiten dutela presioa EBZk interes-tasa jaitsi dezan datozen hilabeteetan. Espainiako gobernuaren hazkunde-aurreikuspenen arabera, 2024rako hazkunde aurreikustea +% 2,7 izango da, eta +% 2,4 2025erako. Erkidego-mailan, 2024an egindako hazkunde-aurreikuspena +% 1,9 da 2024rako, eta +% 2,1 2025erako; horren arabera, agertoki makroekonomikoa egonkorra izango da hazkunde-eritmoari dagokionez.

Espainiako eta Euskadiko biztanleen konfiantza handitzen ari da, eta hobetzeko bidea sendotzen. Langabeziaren bilakaerari eta aurrezteko gaitasunari buruzko itzaropen positiboek zor zaie emaitza hori; zalantzarik gabe, egoera inflazionista murriztu delako eta interes-tasak jaitsi direlako, bide kontinuista batean. Nolanahi ere, bi aldagai horien (inflazioa eta interes-tasak) bilakaera, hazkundearekin eta enpleguarekin batera, aldi behin berrikusi behar da benetako bilakaera ikusteko. Jarduera ekonomikoaren adierazleekin lotutako alderdiez gain, lan-merkatuari buruzkoak nabarmendu behar dira, aurreikuspen horien sendotasuna berresten baitute. Arabako lan-merkatuaren 2024ko adierazle gehienek berretsi egiten dute osasun-krisiak eragindako desorekaren ondoren aurreikusitako susperraldi ekonomikoa. Enplegu-tasa Estatuko batez bestekoaren gainetik egon zen, eta Gizarte Segurantzako afiliazioa maximo historikoetara iritsi zen. Hala ere, faktore exogenoek, hala nola Ukrainako eta Israelgo gatazkek, eragin nabarmena izan dezakete egoera makroekonomiko horren osieran.

Nazioarteko eta nazioko testuinguru ekonomikoa aztertuta, gatozen probintzia- eta toki-mailara; horretan, garrantzi berezia hartzen du EAEko foru-ogasunek 2025erako zerga itunduengatik bilduko dutenaren zenbatespenak, erabakigarria baita autonomia-, probintzia- eta toki-sarreraren



aurreikuspenak formulatzeko. Horri dagokionez, eta aurrerago zehaztuko den moduan, Euskal Autonomia Erkidego osoan bilketa % 7,70 handituko dela aurreikusten da, eta % 2,70 Arabako Lurralde Historikoan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2024ko urriaren 15ean eta CETALFAK garai berean emandako informazioaren arabera.

## AURREKONTUAREN EDUKIA

2025erako aurrekontu orokorren proiektua orekatua da, diru-sarreraren eta gastuen egoera-orrian **578 milioi euroko** aurreikuspena du, eta toki-erakundearen, hiru administrazio-erakunde autonomoen eta lau sozietate anonimoen aurrekontuak jasotzen ditu. Toki administrazioari dagokionez, hau da, Gasteizko Udalari berari dagokionez, proiektua ia **476 milioi eurokoa** da, bere historiako altuena; horrek esan nahi du, termino absolutuetan, **16,63 milioi euroko** igoera izan dela, eta **% 3,62koa** termino erlatiboetan.

Aipatzekoa da Arabako Foru Aldundiak 2025erako aurkeztutako aurrekontu-proiektuaren hazkunde erlatibo % 5,3koa dela, Euskal Autonomia Erkidegokoa % 4,7koa eta Bilboko Udalarena % 2,6koa. Erakunde horiek hurbiltasun geografikoagatik hartzen dira erreferentziatzat, baina kontuan hartu behar da bakoitzaren ezaugarriak eta osaera eta aurrekontuekin lotu nahi dituen helburuak desberdinak direla. Aurreratu nahi dugu, eta argi dago, 2025erako aurrekontu-proiektu honen ezaugarri nagusia Udalaren errealitate ekonomikoarekiko koherentzia dela, baita Gasteizko herritarren beharrei erantzuteko lehenetsutako helburuarekiko koherentzia ere. Azken batean, zorrotasunez landutako aurrekontuak dira, lor daitezkeen benetako diru-sarrerak kontuan hartzen dituztenak abiapuntu gisa, eta bete nahi dituzten premiak eta zerbitzuak lehenesten dituztenak. Kontu sendoak eta saneatuak, udal zerbitzuei eutsi eta jarraipena emateko eta horiek hobetzeko.

Oroitidazki honetan zehar xehatuko dira proiektuaren helburuak, formulatzeko erabilitako premisak, aurrekontu-aplikazioen banakatze zehatza (diru-sarrerei zein gastuei dagokienez) eta 2024arekiko aldaketa nagusiak. Nabarmentzekoa da udal sailen gastu-aurrekontua —lehenengo kapitulua barne, 2025ean aldaketa handia baitakarte— handitu egin dela 2024arekin alderatuta, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren eta Ingurumenaren Sailaren kasuan izan ezik, 2024an Principal antzokia birgaitzeko obrak esleitu direlarik, horietara bideratutako kredituak birprogramatu izanak duen berezitasunagatik, geroago argituko dugunez.

Aurrekontuak erronka ilusio-eragile bati egin nahi dio aurre: Gasteizko herritarren beharrei erantzutea, kalitatezko zerbitzu publikoak emanez eta, jakina, 2024-2027ko Gobernu Programan jasotako politika publikoekin lerrotatzen diren aurrekontu-zuzkidurak txertatuz. Alkateak talde politikoei zein herritarrei oro har aurkeztutako programa hori 6 ardatzetan egituratzen da, eta 14 lan-esparru eta 100 konpromiso barne hartzen ditu.

Dagoeneko bete dira gobernu-programaren helburuen eta horretarako beharrezkoak diren ekintzen zati handi bat (2024ko aurrekontuan sartu zirenak), eta horien berri eman zen 2024ko uztailaren 4an eta 5ean politika orokorrari buruz egindako osoko bilkuran. 2025erako aurrekontu-proiektu honek jada markatutako bide egonkorrari jarraitzen dio, eta programan aurrera egiten jarraitzeko beharrezkoak diren ekintzak txertatzen ditu.

Hori guztia helburu argi batekin: hau ekintzaren legealdia izatea, eta hiri erakargarriagoa eraiki ahal izatea, bizitzaz eta aukerez betea, ingurumenarekiko errespetuzkoa, hobeto konektatua, seguruagoa, berdinzaleagoa, parte-hartzaileagoa, zerbitzu publiko sendo eta efizienteekin, harrotasuna pizten duen hiria, etorkizunera begira dagoena; azken batean, planteatutako helburuak erantzukizunez, erabakitaz eta ambizioz lortu ahal izatea.

Horregatik guztiagatik, 2025erako aurkeztu den aurrekontuak oraingo beharrei erantzuten die, baina etorkizuneko erronkak ere hartzen ditu kontuan. Apustu hori argi islatzen da geroko ekitaldietarako konpromiso-kredituen eranskinean. Eranskin horrek bere historiako zifrarik altuena jasotzen du, betiere helburutzat hartuta Gasteiz bere ingurunearen erreferentzia izatea, hiri ireki, plural eta konprometitua, kalitatezko zerbitzuak mantentzearen eta areagotzearen alde egingo duena,



herritarren beharrak entzun eta artatuko dituen, bereziki zaugarrienenak. Azken batean, udal irekia, hurbila, herritarren premiei erantzungo diena eta, azken batean, haien nahiak bete eta arazoak konponduko dituen.

Eta, horretarako, berebiziko garrantzia duen tresna bat eduki behar da, alegia, 2025eko ekitaldirako udal aurrekontuak; kudeaketa-dokumentu izango diren gida-aurrekontuak, ekonomia- eta finantza-terminoetan adierazita, non jasoko baitira garrantzi ekonomikoa duten erabaki politikoak, aipatutako politikak garatzea eta programatutako helburuak lortzea ahalbidetuko dutenak. Horretaz gain, baliabide publikoen kudeaketa zuzenaren jarraipena egiteko erreferentzia-tresna izango dira.

Aurrekontuak egiteko lehen urratsa, beraz, diru-sarreraren aurreikuspenak zorroztasunez zehaztea da, aurrekontu-zuhurtasunaren printzipio argi batekin. Diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak finantzen aldetik orekatuta daudenez, horien zenbateko osoak zehaztuko du Udalak gastuetarako, inbertsioetarako eta zorraren amortizaziorako izango duen gehieneko zenbatekoa. Zuhurtasunez, zorroztasun teknikoaz eta erantzun beharreko premien azterketa zabal batekin eta, jakina denez, eskasak diren eta beste erabilera batzuk izan ditzaketen baliabideekin.

Aurrekontuarekin batera doazen dokumentu teknikoetan daude jasota diru-sarreraren egoeraren aurrekontu-aplikazio zehatzen banakapena eta horien aurreikuspenak egiteko erabilitako premisak, aurrekariak eta informazioa, bereziki sarreraren eranskinean eta txosten ekonomiko-finantzarioan, eta sakon eta arretaz kontsultatu nahi izanez gero horietara jo behar da. Jarraian, diru-sarreraren egoerari buruzko ohar esanguratsuenak laburbilduko ditugu.

Diru-sarreraren aurrekontuak —ezin beste modu batean izan— eskubide-onartze eta diru-bilketen aurreikuspenak aintzat harturik egin dira, betiere aurrekontu-zuhurtasunaren printzipio ezin argiagoari jarraituz. Horretarako, kontuan hartu dira egungo testuinguru ekonomikoa eta Gasteizko Udalak izandako diru-sarrerak gauzatzeari buruzko datu historikoak. 2025eko aurrekontu-ekitaldian aurreikusita dago finantza-pasiboetara jotzea inbertsioak finantzatzeko. Hona hemen proiektu honetan jasotako diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa eta 2024arekiko aldakuntza, termino absolutu zein erlatiboetan:

## DIRU-SARRERAK

KAPITULUA	2025. URTEA	2024. URTEA	2025-2024 ALDEA	ALD. (%)
1.- Zuzeneko zergak	96.546.000,00	92.970.000,00	3.576.000,00	% 3,85
2.- Zeharkako zergak	12.902.500,00	12.000.000,00	902.500,00	% 7,52
3.- Tasa eta prezio publikoak	76.731.153,00	63.952.813,00	12.778.340,00	% 19,98
4.- Transferentzia arruntak	246.794.900,03	242.896.136,49	3.898.763,54	% 1,61
5.- Ondare-sarrerak	2.977.040,31	3.080.000,00	-102.959,69	-% 3,34
6.- Inbertsioak besterentzea	14.048.618,86	13.683.400,00	365.218,86	% 2,67
7.- Kapital-transferentziak	11.514.393,26	15.100.718,17	-3.586.324,91	-% 23,75
8.- Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00	
9.- Finantza-pasiboak	14.085.796,60	15.289.805,62	-1.204.009,02	-% 7,87
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>475.600.402,06</b>	<b>458.972.873,28</b>	<b>16.627.528,78</b>	<b>% 3,62</b>

Diru-sarreraren egoerak 16,63 milioi euroko igoera izan du termino absolutuetan eta % 3,62koa termino erlatiboetan 2024ko udal aurrekontuekin alderatuta, batez ere diru-sarreraren egoeraren I., II. eta III. kapituluei dagozkien baliabideak handitu direlako 2025erako zerga-ordenantzei buruz behin-behinean onartutako akordioen ondorioz. Ordenantza horietan, % 4ko igoera orokorra sartu da zuzeneko



zergetarako, tasa eta prezio publikoetarako eta, bereziki, hondakinen tasa berritik eratorritakoetarako, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legean jasotakora egokitzeko.

Orobat, igoera oso apala nabari da udalek FOFELen bidez zerga itunduetan duten partaidetzatik datozen baliabideetan, 2024ko aurrekontuan jasotako hasierako aurreikuspenarekin alderatuta, eta 2024ko ekitaldiari dagokion likidazioa ere sartu da, zeina ziur aski negatiboa izango baita. Ondarezko diru-sarrerak zertxobait gutxitu dira, diruzaintzako soberakinen finantza-kudeaketarekin lotutako interes-tasen jaitsieragatik, eta kapital-transferentzietan murrizketa bat antzeman da, Zaramaga Birgaitzeko Plan Integralek eratorritako diru-sarrerak erakunde emaileak onartutako ekarpen-egutegira egokitu izanaren ondorioz; beste erakunde batzuek Principal antzokia birmoldatzeko obretarako egindako ekarpenengatik aurreikusitako diru-sarrerak ere murriztu dira, ekarpenak obrak gauzatzeko benetako erritmora egokitu baitira.

Azkenik, IX. kapituluan (Finantza-pasiboak), inbertsioak finantzatzeko beharrezkoa izaten jarraitzen badu ere, zorpetzera gutxiago jotzea aurreikusten da.

Eragiketa arruntengatik sarrerak diru-sarrera guztien % 91,66 dira (2024an % 90,40 izan ziren), eta kopuru absolutuetan 20 milioi euro baino pixka bat gehiago igo dira. Nabarmentzekoa da 3. kapituluari (Tasa eta prezio publikoak) dagokion igoera, batez ere hondakinen tasa 7/2022 Legea egokitu beharrak ekarri duen igoeragatik. 1. kapituluan (Zuzeneko zergak) gehikuntza bat jaso da, ordenantza fiskaletan izan den igoera orokorragatik (% 4). Bestetik, 4. kapituluan hazkunde moderatua jaso da, FOFELen bidezko zerga itunduen partaidetzari dagokion aurreikuspenarekin bat etorritz (kontzeptu horrengatik 2024ko likidazio negatiboaren aurreikuspena barne): guztira, 3,8 milioi euro baino gehixeago. Beste entitate batzuen gainerako ekarpenak 2024koak bezalatsu mantendu dira. Kapitulu honetan nabarmentzekoa da, halaber, beste entitate batzuek enplegu-politika aktiboak —enplegu planak— finantzatzeko egiten dituzten ekarpenen gehikuntza, plan horiek aurrekontuan jasotzeko irizpideak egokitu egin baitira, normalean bi aurrekontu-ekitaldiren artean banatzen direlako.

2. kapitulua (Zeharkako zergak, EIOZ) % 7,52 hazi da, eraikuntza-jarduerak eta higiezinak birgaitzeko jarduerak gora egingo duela aurreikusten delako; 3. kapitulua % 19,98 igo da, batez ere hondakinak bildu eta tratatzeagatik tasa berriaren ondorioz, eta 5. kapitulua % 3,34 murriztu da, interes-tasen jaitsiera dela kausa kutxen eta bankuen interesengatik diru-sarrerak ziur aski murriztu egingo direla aurreikusten delako eta, ondorioz, diruzaintzako puntak jartzean finantza-errentagarritasun handiagoa lortu ahal izango delako.

Kapital-eragiketengatik sarrerak % 5,37 izango dira 2025ean (% 6,27 2024an). Kapital-transferentzien ondoriozko diru-sarreraren egoera-orriko 7. kapituluan izandako murrizketak azaltzen du 3,59 milioi euroko beheranzko aldaketa hori, aurreikuspen berriak sartu baitira beste entitate batzuen ekarpen finalisten aurrekontuan, Principal antzokiaren erreformari dagozkion inbertsioen kofinantzaketarako. Beraz, kapitulu horri dagozkion diru-sarrerak murriztu egin dira 2024arekin alderatuta, batetik, Principal antzokiko obrak esleitu ondoren ekarpenak gauzatzeko benetako erritmoaren arabera birprogramatu direlako; bestetik, Zaramagako PIIEn kasuan, aurreikusitako ekarpenen egutegiagatik, gastu eta inbertsio garrantzitsuenak dagoeneko esleitu eta gauzatzen ari direnez Eusko Jaurlaritzaren ekarpena murriztu egin baita. Aurreko ekitaldietan bezala, Eusko Jaurlaritzaren 3,5 milioi euroko ekarpena mantentzen da hiriburutza kanonaren inbertsioetarako, eta Arabako Foru Aldundiaren 2,5 milioi euroko ekarpena lurraldean garrantzia duten ekipamendu eta azpiegituretan inbertsioak finantzatzeko. Diru-sarreraren 6. kapituluan (Inbertsio errealak besterentzea) jasotako zenbatekoa 2024ko ekitaldikoaren antzekoa da termino absolutuetan, baita besterendu beharreko ondasunen osaera ere —aurrekontu-proiektu honetan eranskin gisa jaso dira—; lehenetsuna eman zaio besterentzeko aukera handiak dituzten ondasunak sartzeari, hau da, alde zuzeneko beste faktore edo baldintzatzaile batzuen mende ez daudenak. Gainera, HAPO behin betiko onetsita, aurreikuspen horiek gauzatzeko aukerak are handiagoak izatea espero da. Kapitulu honetan sartu dira, halaber, udal aparkalekuetako plazak besterentzeko aurreikuspenak, eta bereziki nabarmentzen dira Iradier Arena aparkalekuari dagozkionak, plaza horiek erregistratzeko baldintzak konpondu ahal. Geroago zehaztuko dira kopuruak eta prezioak, eskaintzak eta eskariak gurutzatzean.



Gainerako diru-sarrerei dagokienez (finantza-sarrerak), 2025erako aurrekontu-proiektu honetan 14,09 milioi euroko finantza-pasiboetara jotzea aurreikusi da. Aurrekontu osoarekiko duten garrantzi erlatiboa % 2,96koa da, 2024ko % 3,33aren aldean. Zenbateko hori ezarritako lege-arauen arabera kalkulatu da, toki-administrazioaren beraren zorpetzea ez ezik, finkatutako talde osoarena ere erreferentziatzen hartuta.

Aurrekontu-proiektu honetan, transferentzia arruntak 246,79 milioi euro baino zertxobait gehiago dira; 2024ko aurrekontuan, berriz, 242,90 milioi euro izan ziren. Kapitulu honetan, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsa (FOFEL) da partidarik nagusia, 216,47 milioi euroko kopuruarekin, 2024an kontzeptu horretan izango bide den likidazio negatiboa barne. Zenbateko hori kalkulatzeko, FOFELen indarreko araudiaren irizpideak eta 2025erako zerga itunduen bilketaren aurreikuspenak aplikatu dira, horiek baitira funtsa kuantifikatzeko oinarriak, eta, bereziki, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2024ko urriaren 15ean hartutako erabakiak eta Arabako Toki Administrazioak eta Finantzetako Lurralde Kontseiluak 2024ko urriaren 22an egindako bileran emandako datuak. Hala, 2025erako 222,5 milioi euro esleitu zaizkio Gasteizko udalerrinari. Zenbateko horrek % 4,87ko igoera dakar 2024ko aurrekontuan jasotako hasierako aurreikuspenarekin alderatuta (212,15 milioi euro), eta % 2,78ko igoera 2024an aitortutako FOFELen behin betiko aurreikuspenarekin alderatuta (216,4 milioi euro). Diru-sarreraren egoeraren hasierako aurreikuspenaren jasotzen den zifra negatiboa (-6,01 milioi euro) AFAREN webgunean argitaratutakoa (-7,52 milioi euro) baino txixixeagoa da, eskura ditugun informazioak kontuan hartuta. Informazio horien arabera, euskal ogasunen zerga itunduen bilketak urrian, azaroan eta abenduan aurreikusitako erritimoan jarraitzen du, mutualistei egindako itzulketen eragina gorabehera. Nolanahi ere, 2025eko otsailera arte ez dira behin betiko likidatuko 2024ko ekarpenak.

Aurrekontuaren kapitulu horretan ez da jasotzen ez Europar Batasunak ez Eusko Jaurlaritzak Next Generation Funtsen bidezko Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia programaren barruan egindako ekarpenengatiko diru-sarreraren aurreikuspenik, aurkeztutako deialdiak dagoeneko gauzatzen ari direlako, eta horietako asko amaituta daudelako. Udalarentzat ekarpenak dakartzaten deialdi berriak sortuz gero, diruz lagundutako proiektuak aurrekontu-aldaketan bidez sartuko dira, zeinetan bereizi egingo baitira beste erakundearen ekarpena eta udalarena berarena, baldin eta proiektu inbertitzaileak osorik finantzatuta ez badaude.

Aurkeztutako proiektuaren gastuen egoerari dagokionez, eta proiektua egiteko erabilitako premisak sakon aztertu baino lehen, beharrezkoa da proiektuaren azterketa laburra egitea, bai eta 2024arekiko aldaketa ere, ikuspegi bikoitzetik: alde batetik, egitura organikoari erreparatuta, hau da, nork gastatzen duen; bestetik, egitura ekonomikoari erreparatuta, hau da, zertan gastatzen den.

Hasteko, egitura ekonomikoari helduko diogu. Horrek izaera ekonomikoaren arabera sailkatzen ditu gastuak, baliabideak zertan erabiltzen diren erantzuteko. Ezberdintasun nagusiak azaltzeko, 2024arekin alderatuko ditugu. Honako hauek dira 2025erako aurkeztutako aurrekontu-proiektuaren eta 2024koaren arteko aldeak, termino absolutuetan zein erlatiboetan, kapituluka sailkatuta:

#### GASTUAK

KAPITULUA	2025. URTEA	2024. URTEA	2025-2024 ALDEA	ALD. (%)
1.- Langile-gastuak	177.926.372,28	168.509.529,58	9.416.842,70	% 5,59
2.- Erosketak eta ohiko ond.	187.324.427,89	179.112.519,16	8.161.908,73	% 4,56
3.- Finantza-gastuak	2.436.307,87	2.540.303,36	-3.995,49	-% 0,16
4.- Transferentzia arruntak	51.872.616,63	51.556.147,62	296.469,00	% 0,57
5.- Ondare gastuak	0,00	0,00	0,00	
6.- Inbertsio errealak	29.937.869,44	32.263.720,62	-3.405.851,18	-% 10,21
7.- Kapital-transferentziak	14.323.742,00	12.007.577,87	3.366.164,13	% 30,72
8.- Finantza-aktiboak	52.600,00	52.600,00	0,00	



9.- Finantza-pasiboak	11.726.465,96	12.930.475,07	-1.204.009,11	-% 9,31
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>475.600.402,07</b>	<b>458.972.873,28</b>	<b>16.627.528,78</b>	<b>% 3,62</b>

Oro har, ikusten da gastuen aurrekontuko kapitulu asko handitu egin direla 2024arekin alderatuta, hauek izan ezik: 3. kapituluak (Finantza-gastuak), zeinean jaitsiera txiki bat egin baita, mailegu-interesak kalkulatzeko erreferentziatzat hartzen diren interes-tasak jaitsi direlako, eta 9. kapituluak (Finantza-pasiboak), zorra amortizatzen bideratutako zenbatekoa murriztu egin baita, ekitaldietan zehar zorraren osaera aldatuz joan delako. 6. kapituluari dagokionez (Inbertsioak), eta Principal antzokiaren eragina —lehenago azalduakoa— alde batera utzita, Udalaren nahiz talde osoaren inbertsio-ahalegina, oro har, 2024koaren ia balio berdinetan mantentzen da.

Zehatzago aztertuko dugu gastuen egoera-orriko kapituluaren osaera, eta 2024arekiko aldaketa handienak aipatuko ditugu. Horien xehetasunak aurrekontu-proiektuan txertatzen diren eranskinetan jasotzen dira, eta aurrekontuaren edukia ikuspegi organikotik aztertzean zehazten joango gara, udal sail bakoitzaren aurrekontua azalduko baitugu bertan. Beraz:

- **1. kapituluak (Langile-gastuak)** % 5,59ko igoera erlatiboa jasotzen du, hau da, ordainsarrietan eta Gizarte Segurantzako eta Elkarkidetzako kotizazioetan aurreikusitako igoera baino % 4,1 gehiago. Izan ere, % 2,5eko lansari-igoera nominala hartu da kontuan, eta horri 2024tik datorren % 0,5 gehituko zaio, baita Gizarte Segurantzarako eta Elkarkidetzarako kotizazioen igoera ere, aipatutako gehikuntzen eta kotizazio-oinarrien arauko igoeraren ondorioz. Garatzen eta ezartzen ari diren langile-politikek udalaren giza baliabideen erabilera ahalik eta kostu txikienarekin optimizatzea dute helburu, baina beste neurri batzuk ere hartzen ari dira (udal administrazioa modernizatzea, belaunaldiak txandatzeko, plantilla gaztetzeko eta ezagutza transmititzeko neurriak, lanpostuen balorazioa, etab.), eta horrek igoera justifikatzen du.
- **2. kapituluak (Ondasun eta zerbitzu arruntak erostea)** kontratu hauek nabarmentzen dira, duten garrantziarengatik: eraikinen errentamendua; aseguruak; argiaren, gasaren, uraren, gasaren eta abarren askotariko hornidurak, eta askotariko zerbitzu-prestazioak. Zerbitzuen artean, honako hauek nabarmentzen dira, duten garrantzi ekonomikoagatik: hondakinak bildu, garraiatu, tratatu eta ezabatzea; bide publikoa eta berdeguneak mantendu eta kontserbatzea; eraikinak; aplikazio informatikoak, eta gizarte-politiken esparruko prestazioekin lotutakoak, bereziki etxez etxeko zerbitzuari, adinekoren garraioari eta dieta berezietako otordu-zerbitzuei dagozkienak, eta, azkenik, garrantzi gutxiagokoak ez badira ere, kultura-jarduerarekin eta osasunaren eta kirolaren sustapenarekin lotutakoak. Zerrenda hori ez da ez eskusiboa ez baztertzaila, Udalak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen kopurua oso handia baita.

Kapituluak % 4,56ko igoera izan du, 2024rako aurreikusitako KPlaren bilakaeratik (2,70 inguru izango dela kalkulatu dugu) eta soldata-kostuen igoeratik (Gizarte Politikek kontratatutako enpresetan zerbitzuak ematen dituzten langileen hitzarmen batzuetan % 10 gotzen dira) urrun samar.

Behin baino gehiagotan adierazi den bezala, Udalaren helburua da kapitulu honi dagokion gastuari eustea.

- **3. kapituluak (Finantza-gastuak)** % 2,58 gutxitu da, Udalak formalizatutako maileguen finantza-karga murriztearen ondorioz, erreferentziatzat dituen interes-tasak (EURIBOR) jaitsi egin direlako.
- **4. kapituluak (Transferentzia arruntak)** 2024ko balio beretsuei eutsi zaie, eta % 0,57 baino ez da igo. Oro har, Udalak zuzeneko kontraprestaziorik gabe egiten dituen gastuak finantzatzeko ekarpen guztiak finkatzea izan da kapitulu honen aurrekontua egiteko erabili den irizpidea. Ekarpene horiek sail guztiek kudeatzen dituzte, eta hainbat hitzarmen eta dirulaguntzaren bidez gauzatu dira, askotariko eremu eta kolektibori zuzenduta. Hitzarmen eta dirulaguntza horien onuradunek egiten dituzten jardueren balio erantsia eta gizarte-itzulkina zailantzarik gabeak dira. Duten garrantzi ekonomikoa dela-eta, nabarmentzekoak dira TUVISAri hiri-garraioaren txartelaren prezioa konpentsatzeko egindako ekarpenak; horretan,



Udalaren zatiaz gain, hala Estatuak nola Eusko Jaurlaritzak 2025ean egingo bide dituzten ekarpenak ere sartu dira.

- **6. kapitulua (Inbertsio errealak).** Udalaren aurrekontuaren kapitulu honek behera egin du, bai kopuru absolutuetan, bai erlatiboetan (% 10,21eko jaitsiera), baina Principal antzokiko obren exekuzio-erritmoa birprogramatzearen eragina kenduta, % 4,67 handituko litzateke kapitulua. Gogoeta bera egin behar da uda taldearen inbertsio guztiak kontuan hartzen baditugu, zeinetan, Udala bera alde batera utzita, nabarmentzekoak baitira TUVISAk autobus elektriko berriak erosteko egindako inbertsioak, AMVISAk eraldaketa digitalerako egindakoak eta 21 Zabalgunea zenbait gune urbanizatzeko obretarako egindakoak. Kapitulu honetan, batez ere eskaintzen diren zerbitzu publikoen funtzionamendurako inbertsioak egiteko kredituak jasotzen dira, bai eta hiriko azpiegiturei lotutakoak ere, bereziki bide publikoari eta berdeguneei dagozkienak. Aurrekontuen proiektuan nabarmentzekoak dira, duten garrantzi bereziagatik, Principal antzokia eraberritzeko inbertsioak, Auzoen Gida Plana eta Zaramaga auzoaren hiri-berroneratze integralerako proiektuari lotutako kredituak. Kapitulu hau amaitzeko, berriro esan behar da ez dela Next Funtsen bidez finantzatutako inbertsiorik sartu, 2024ko bigarren seihilekoko deialdia 2025ean ebatziko baita. Finantzatutako proiektuak eta zenbateko zehatzak ziur ezagutu ondoren, aurrekontuan sartuko dira, dagozkion aurrekontu-aldaketen bidez.
- **7. kapitulua (Kapital-transferentziak).** Kapitulu horrek igoera handia izan du 2024ko ekitaldiarekin alderatuta, % 30,72koa, Udalak 21 Zabalgunea sozietateari egindako ekarpenak direla medio, etxebizitzak birgaitzeko laguntzak kudeatzeko (2,9 milioi euro gehiago) eta sozietatearen beraren edo Udalaren jabetzako higiezinak birgaitzeko (1 milioi euro gehiago). Eusko Jaurlaritzari Zabalganerako tranbia eraikitzeko obrengatik egin beharreko ekarpena egokitu da, eta konpromiso-kredituan proiektu horretarako esleitutako zenbatekoak aldatu dira, proiektuaren definizioak aurrera egin ahala, eta dagozkion hitzarmenak sinatu bitartean.
- **9. kapitulua (Finantza-pasiboak).** Kapitulu hau zorra amortizatzerara bideratuta dago, eta % 9,31 jaitsi da 2024aren aldean, zorraren osaera aldatuz doalako ekitaldiz ekitaldi, eta apur bat jaitsi delako.

Baliabideak egitura ekonomikoaren arabera banatzeko, hau da, zertan gastatzen den kontuan hartuta, sail, erakunde autonomo eta sozietate anonimo guztiak baterako azterketa eta hausnarketa egin behar izan dute, eskasak diren eta beste erabilera batzuk izan ditzaketen baliabideak definizioz mugagabeak diren premiak asetzeko banatze aldera. Hala ere, aurkezten den aurrekontuak ahalik eta premia handienei eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak baliatuz erantzuteko erronka ilusio-eragilea jasotzen du, helburuak ahalik eta kostu txikienarekin lortuz, baina betiere pertsonak lehenetsiz.

Azkenik, aipatu beharra dago aurrekontu-proiektuak hainbat eranskinetan jasotzen dituela zehatz-mehatz inbertsio errealak, transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak.

Aurrekontua sailkapen ekonomikoaren arabera aztertu delarik, orain aurrekontu-kredituak egitura organikoaren arabera sailkatu behar dira, hau da, norik gastatzen duen, gastua kudeatzen duten udal sailen arabera sailkatuta.

Horretarako, eta ezin bestela izan, kontuan hartu dira alkateak Udalaren egitura organikoaren antolamenduari buruz emandako dekretuak. Ondoren zehazten da aurrekontuaren banakatzea sailen arabera eta 2024arekiko aldea adierazita. Sailkapen horretan 1. kapitulua (Langile-gastuak) sartu da, kapitulu horrek gastuen aurrekontuan duen garrantzia kontuan hartuta; izan ere, Udalaren aurrekontu osoaren herena baino gehixeago da, eta gastu arrunten ia erdia da. Ordainsarien igoerek eta kotizazio-oinarrien gehikuntzak eragin nabarmena dute gastuen aurrekontuaren zifra absolutuetan.



SAILA	2025EKO AURREKONTUA	2024KO AURREKONTUA	ALD. (%)
01.- Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna	13.891.226,29	13.270.455,23	% 4,68
02.- Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena	60.011.491,38	61.380.967,25	-% 2,23
03- Segurtasuna	45.731.452,00	43.794.730,78	% 4,42
04.- Ogasuna	68.614.720,31	65.816.238,74	% 4,25
08.- Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa	20.167.848,62	19.966.331,71	% 1,01
09.- Funtzio Publikoa	5.595.175,43	4.616.000,62	% 21,21
10. eta 16.- Administrazioa Modernizatzea	57.148.051,35	56.243.528,80	% 1,61
11.- Gizarte Politikak	88.867.793,89	83.341.982,49	% 6,63
13.- Kontu Hartzaitza eta Ikuskaritza	540.475,00	519.132,74	% 4,11
15.- Espazio Publikoa eta Auzoak	41.719.415,11	40.985.341,70	% 1,79
18.- Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeak	19.704.294,26	18.905.311,41	% 4,23
23.- Kultura eta Hezkuntza	28.987.674,92	27.154.569,34	% 6,75
24.- Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetzak	21.316.250,50	19.776.360,25	% 7,79
90.- Beste	3.304.533,00	3.201.922,22	% 3,20
<b>GUZTIRA</b>	<b>475.600.402,06</b>	<b>458.972.873,28</b>	<b>% 3,62</b>

Sail guztiek (02 sailak izan ezik, Principal antzokiarekin lotuta adierazitako arrazoiengatik) handitzen dituzte aurrekontuak, eta diru-sarreretan lortutako baliabide handiagoak sail bakoitzean garatzen diren politika publikoak sustatzeko eta handitzeko moduan bideratzeko ahalegina egin da. Horietako bakoitzaren igoera zehatza azaltzen duten arrazoiak sail bakoitzaren eranskin eta memorieta jasotzen dira, eta, beraz, beharrezkoa da azterketa xehatu bat egitea; izan ere, bistakoa denez, ez dago igoera horiek oro har azaltzen dituen izendatzaile komunik.

Sailtako zinegotzien agerraldietan, bakoitzak bere aurrekontuen edukia sakon azaldu eta zehaztu du, ahaztu gabe, azken batean, baliabideen esleipenaren helburua dela aurrezki arrunt garbiaren marjinak handitzea, bi politika bateratuz: diru-sarrerak handitzea, kostu errealek eta ematen diren zerbitzuen kalitatera egokituz, eta gastu arruntari parametro onargarri batzuetan eustea.

Ezin dugu oroitidazki hau amaitu proiektu honetan sartutako konpromiso-kredituak aipatu gabe, hainbat urtetarako kreditu horiek agerian uzten baitute 2024-2027ko gobernu programan ezarritako helburuak lortzeko egin nahi den inbertsio-ahalegin handia. 2024arekin alderatuta, nabarmena da kredituen zenbateko osoan eta osieran izandako aldaketa. 2025eko ekitaldirako, konpromiso-kreditu gisa sartu dira maiz errepikatzen diren inbertsio-proiektuak, gehienbat zenbait urtetarako direnez, egonkortasun handiagoa ematearren eta, aldi berean, haien lizitazioa egokitu eta erraztearren. Horregatik handitu da eranskinaren guztizko kopurua 2024arekin alderatuta.

Udal aurrekontuan jasotako konpromiso-kredituak 84.901.210,14 euro dira orotara; kredituen programa zehatzak konpromiso-kredituen eranskinean jaso dira, 2026 urterako eta hurrengoetarako banatuta, gehitutako taulan zehazten den bezala. 2025eko ordainketa-kredituak ere sartzen dira.

#### KONPROMISO-KREDITUAK, HURRENGO URTEETAN

KONPROMISO-KREDITUAK	Ordainketa-kreditua 2025	Kontrol-kodea 2026	Kontrol-kodea 2027	Kontrol-kodea 2028	Kontrol-kodea 2029	Kontrol-kodea 2030
----------------------	-----------------------------	-----------------------	-----------------------	-----------------------	-----------------------	-----------------------



---

INBERTSIO ETA GASTUAK	26.674.831,34	39.470.910,33	30.126.520,81	12.198.882,00	2.743.882,00	361.015,00
--------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------	--------------	------------

Proiektu honi gehitutako konpromiso-kredituen eranskinean, izaera hori duten partida guztiak zehazten dira, alegia, etorkizuneko ekitaldietarako zenbait urtetarako kredituak ohiko terminologian. Era berean, beste entitate batzuek (Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundia) egindako ekarpenetatik datorren finantzaketa zehazten da; arlo, proiektu eta helburu zabalak biltzen dituzenez, lasai aztertzea meretziko luke. Besterik gabe, inbertitzeko ahalegina azpimarratuko dugu berriro, kreditu horietarako konprometitu daitezkeen baliabideen muga betetzeko, jakina, arau-xedapenetan ezartzen den bezala.

Eta, amaitzeko, aurrekontua ulertzen laguntzen duten zenbait dokumentu aipatu behar dira, ikusmolde ekonomiko klasikoetik haratago doazen beste ikuspuntu batzuk kontuan hartuta. Esaterako, "Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen aurrekontua" izeneko txostena, zeinaren helburua baita 2025eko udal aurrekontuen proiektua genero-berdintasunaren ikuspegitik aztertzea, eta, hartara, Gasteizko Udalaren Berdintasun Planean jasotako konpromisoak betetzea.

"Aurrekontuak GJHen arabera" txostenaren bitartez, Gasteizko Udalak beste urrats bat egin du garapen jasangarriaren alde eta, bereziki, 2030 Agenda betetzearen alde egindako ibilbide luzean. Udal aurrekontua da ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasunari eusten laguntzen dioten politika publikoak planifikatzeko eta ezartzeko tresna nagusia. Politika publikoak GJHak lortze aldera bideratu nahi baditugu, aurrekontuak nahitaez islatu beharko du asmo hori. Planean Udaleko sail guztiek eta udal sozietate publikoek zein udal erakunde autonomoek parte hartu dutela nabarmendu nahi dugu.

2025eko aurrekontu honetan, aurreko ekitaldian bezala, sailen oroitidazkiak biltzen dituen puntu bat gehitu da, horietan azaltzen baitira 2025ean beren aurrekontuen bitartez lortu nahi dituzten helburu nagusiak.